

Diskoak

IKER BARANDIARAN



Disko gorria.
Gose.
Autoekoizpena.
Iraupena: 42'55".
17,95 euro.

Goxotasunaren eta gordintasunaren arteko dantza

ARRASATEKO hirukoteak bazterrak zeharo astindu zituen sortu zenean eta berez ez da apenas aldatu; gu gara ohitu garenak. Trikiak eta Inesen ahots goxoak batez ere protagonismoa duten kantu irekiak dira, oinarri elektronikoekin eta gitarra –tarte-ka– gogorrekin borobildu edo zikindutakoak. Badira pasarte oso goxoak, baina hitzek pozoia daramate barruan, kritika eta ironia garratz zein errealista, hain zuzen ere. *Rimmel* kanta aukeratu dute sin-

gletzat, baina gehiago ere badaude auke-
ran; horra hor *Error 404* adibidez. Hala
ere, inongo aurreiritzirik gabe ukitu, sono-
ritate eta tendentzia asko sartzeko gai dira:
hala nola, giro balkanikoak, arabeak, folka,
elektronika zoroa, bossa eta gitarra oso
rockeroak, besteak beste; eta bide batez,
ahal bada tradizioa apurtu. Espezie bere-
zia dira gure paisaia honetan.

www.gose.info

Gose

«Euskal Herrira ekarri duten technoa gazteria despistatzeko da, 80ko hamarkadako heroina bezala»

Hirugarren diskoa klabea ei da, eta zuenak nabardura eta kantu borobile-nak ditu...

Egun hirugarren diskoa 80ko hamarkadako lehenaren parekoa da. Lehen, maketarekin egiten zen erro-daje guztia. Disko zaila da, ordurako taldeak asko jotzen duelako. Gu estu-diora kanta gabe sartu ginen, baina elkar ezagutzen dugu eta guztia jarraian irten zen.

Diskoetxeekin lan egin ostean, auto-ekoizpenaren alde egin duzue. Gus-tura? Autoekoizpena helburua edo bidea da?

Lehenik eta behin diskoetxeengana jo genuen, baina beraien arazoak bakarrik ikus-ten dituzte. Kontura-tu ginen ez duela inork taldearen alde guk baino gehiago egingo. Eta Kap-en laguntza ezinbestekoa da. Autoekoizpena bidea da. Gaur egun diskoa kaleratzea zuzenean jotzeko

promozioa da, taldeak egiten duen inbertsioa.

Aurten gorriak zerekin ezkontzen du?

Ostia txarrarekin, odolarekin eta sexuarekin. Nahi genuke jende askoren pentsaerarekin ere ezkon-tzea, baina hainbeste hipoteka, auto eta beste, inork ez du gorrian pentsatzen; bankuak dira polizia onena.

Zer ekarri zenuten Kurdistandik?

Hizkuntza gabe musika gai dela konexioa sortzeko. Eta Kurdistanek

eta Euskal Herriak asko dutela komunean, uste baino gehiago. Adi-bidez, izan ginen hiriko alkatea espe-txean izan da, eta gure herrikoa ere bai. Orain 40 urteko Euskal Herrian bezala, folklorea zen errebeldeena. Itzuliko gara.

"Bakearen zakua, zakua bakua". Askok ez dute arazo politikoa konpon-du nahi...

Bakearen zakua baino ostien zakua da Euskal Herria. Negozio bat da eta konpontzen saiatzen dena espetxera doa. Eta teleberrirako albisterik ez badago, norbait atxilotuko dute.

Technoa dagoen pun-kyena dela esan du-zue askotan...

Bai, baina atzerrian egiten dena, mezuare-kin, eta "egizu zure kontu" filosofiarekin. Hona ekarri dutena gazteria despistatzeko da, 80ko hamarkadan heroinarekin egiten zuten bezala. ■

DAVID HERRANZ

